

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergari eta jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagozkien ordainagiriak kobratzea. 2026ko ekitaldia

Jendaurrean egon dira hamabost egunez, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren eta hiri eta landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren erroldak, 2026ko ekainaren 8ko ALHAOn (65. zk.) eta 2026ko uztailaren 3ko ALHAOn (75. zk), hurrenez hurren, argitaratu zirenetik, eta ez denez erreklamaziorik aurkeztu, onetsi egin dira.

I. Ordaintzeko epeak.

A) Borondatezko epea: 2026ko urriaren 20tik 2026ko abenduaren 21era.

B) Epe exekutiboa: 2026ko abenduaren 22tik aurrera hasiera emango zaio epe exekutiboari, eta epe exekutiboko errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta dutenek ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berberetik ordaintzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa. Helbideratutako ordainagiriak egun hauetan kobratuko dira: landa ondasunen ordainagiriak, azaroaren 6an; hiri ondasunen ordainagiriak, azaroaren 17an, eta, jarduera ekonomikoen ordainagiriak, abenduaren 18an.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez dutenek, udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Kutxabank finantza erakundeetan udalak dituen dirubilketa kontuetan.

Ediktu honen bidez, erroldako likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorritik Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan xedatutakoarekin. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak izanik, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da alkatearen aurrean, ordainketa egiteko borondatezko epean edo epe hori amaitu ondorengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

Lapuebla de Labarca, 2026ko irailaren 3a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ